



207. zenbakia

·MAIATZA 2021·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Aritz Gorostiagaren argazkia

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira maiatzaren 6ean bidalia





ETXEA HUTSIK

“ Etxea hutsik da.
Mahairik ez, aulkirik ere ez.
Baina egingo dugu lagunarteko afaria.
Atera gontzetatik atea
eta hori izango da gure mahaia.

Atundu oraintxe bertan,
nik ekarriko dut ardoa.
Aspaldi luzean ez didazu idatzi,
berriz ospitaleratu zaituzte agian.
Lagundu nahi dizut
baina ez dakit nola.

Kirmen Uribe,
17 segundo (2019)



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Orain bai, Esan Erraneko estudioa berritu da!



Detaile txiki bat gelditzen zen estudioaren eraberritzea guztiz bukatzeko, eta argazkian ikusi dezakezue zein: Esan Erraneko logo berria paretan paratzea!

Gogoratu, urte berriarekin logo berria estreinatu genuen, Miren Arregik diseinatutakoa. Baita estudio "berria" ere! Guk geuk margotua eta txukundua..!

Eta orain, logoaren pegatina eskuratu dugu eta paretan jarri dugu! Gustoko al duzue emaitza? Bada, bidali zuen iritzia audio bidez 689 033 000 telefonora!

▲ Garazi Zabaleta eta Itziar Perez, Esan Erraneko esatariak, pegatina ondoan

ETXEBIZITZA PROMOZIOA

18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL KOMERTZIAL

- 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean
- Lokal komertzialak





Suteak

Zer hobetu dezakegu eskualdean suteei aurre egiteko?

Azken hilabeteotan sute bat baino gehiago izan dugu eskualdean, eta zorionez guztiak sustoan gelditu badira ere, horiei aurre egiteko orduan ditugun zailtasun eta gabezien inguruan hausnartzeko aukera eman digute. Arraratsen (Basaburua), esaterako, bi etxetan tximiniak su hartu du azken hilabetean, eta zailtasun gehiago edo gutxiagorekin, baina herritarrek beraiek ekidin dute sute horiek kalte handiagoak eragitea.

Ariketa interesgarritzat jo dugu etorkizunean egon daitezkeen suteen aurrean eskualdean zer hobetu dezakegun pentsatzea, eta, horregatik, eskualdeko suhiltzaile batekin eta Arrarasko bi suteak hurbiletik bizi izan zituen herritar batekin hitz egin dugu.

Isokrono mapek zehazten dute nongo parketik bidali behar diren sute edo istripu batera suhiltzaileak

Herri osoa aritu zen sua itzaltzeko lanetan

Martxoaren 22an izan zen Arrarasko lehen sutea, herriko Arretxea etxean. Teilatuak su hartu zuen gaueko 21:30ak inguruan. "Gure leihoak etxe horretara ematen du, eta ohartu ginen sutan zegoela. Segituan behera jaitsi eta ura botatzen hasi ginen", zioen Erruki Ezkurra herritarrek. Etxekoek suhiltzaileak deituak zituzten ordurako, baina Iruñetik iristeko denbora dezente beharko zutela aurreikusten zuten. Horregatik hasi ziren sua modu desberdinetan itzaltzen saiatzen, laguntza ematera hurbildutako herritarrekin batera: "Bizilagun batek traktorea ekarri zuen, eta baratzekeo mangera

horietako batekin ahal bezala sua itzali nahian aritu ginen", kontatzen du.

Argi dago suhiltzaileak ahal bezain azkar iristen direla sute bat dagoen bakoitzean, eta haien esfortzua handia dela, baina Iruñetik Arraratsa iristeko nahitaez 40-45 minutu pasatzen dituzte bidean. Horrek galdera bat egitera garamatza: Nafarroako iparraldean gertatzen diren suteei begira, ez al da hankamotz xamar gelditzen Iruñean zentratzea baliabideen eta pertsonalaren zati handiena?

Gure eskualdeko kasu guztiak, Iruñetik bideratuak

Suhiltzaileen hamaika parke daude Nafarroa osoan banaturik gaur egun: Lizarrakoa, Oronozkoa, Tafallakoa, Tuterakoa, Iruñekoa, Altsasukoa, Aurizkoa, Lodosakoa, Azkoiengoa, Nabaskozekoa eta Zangotzakoa. Parke horiek guztiak mapan kokatzen hasiz gero, ohartuko gara gehienak Iruñetik behera kokatzen direla. "Erriberan biztanle gehiago bizi denez irteera gehiago izaten dira, eta beraz, justifikatuta dago suhiltzaile gehiago egotea inguru horretan", azaltzen du gure eskualdeko suhiltzaile batek. Geografikoki parkeak kudeatzea zaila dela dio.

Baina, nola erabakitzen da edozein sute edo istripu gertatzen denean



Tximinitik teilatura pasatu zen sua Arrarasko lehen sutean (Nafarroako Suhiltzaileak).



Etxe hauetan sua lehenbailehen itzaltzea komeni da, oso azkar zabaltzen delako

nondik bidali suhiltzaileak tokira? Bada, isokrono mapa da hori zehazteko erabiltzen den tresna: 112ak urgentziazko deia jasotzen duenean, langileari programa batek automatikoki esaten dio nongo parketik bideratu behar duen kasua. Horretarako, distantziaz gain beste faktore batzuk ere hartzen dira kontuan: errepideetako desplazamenduaren denbora, trafikoa, parke bakoitzean dagoen suhiltzaile kopurua eta horiek urtean izaten dituzten irteera kopurua...

"Suhiltzaileen partetik eskatu izan da Altsasuko parkea Irurtzuna mugitzea, Nafarroako ipar aldea hurbilago geldituko litzatekeelako. Egia da Altsasu Irurtzun baino askoz handiagoa dela; baina, bestalde, orain Agurainen ere bada parke bat, eta lehen Altsasukoak Arabako eremu bat

ere bere gain hartzen bazuen, orain gutxiago tokatzen zaio alde hartara mugitzea", gehitzen du. Gure eskualdera iristea kostatzen bazaie ere, badira tokiak bertara ailegatzeko ordu bete baino gehiago behar izaten dutena, Goizueta kasu. Bertan eta Leitzan, dena den, suhiltzaile bolondresak ere badira kasuei ahalik eta azkarren erantzuna emateko, nahiz eta gehienetan Iruñekoak ere hurbiltzen diren.

Gure eskualdeko zenbait leku, Ultzamaren zati bat, Lantz edo Anue kasu, dezentez hurbilago gelditzen dira Oronozko parketik; zenbait kasutan denbora erdian iritsiko lirateke hango suhiltzaileak Iruñekoan aldean. Horren inguruan ere hitz egin izan da suhiltzaileen artean, baina Oronozko parkeak zati handia hartzen duela eta irteera asko izaten dituela kontuan izanda, gure eskualdea ez da bertan sartzen momentuz. "Ideiak egon badaude, baina horiek beste norbaitek ikertu behar ditu", dio suhiltzaileak.

Isokrono mapetan aldaketak egon daitezke, eta, berez, Nafarroako edozein udalek du horiek berrikusteko eskatzeko aukera.

Herrietan baliabideak zaintzearen eta herritarrek trebatzearen beharra

Suhiltzaileek zenbait herritara iristeko behar duten denbora kontuan izanda, komeni da herrietan suteei aurre egiteko eskuragarri dauden baliabide eta tresnak ongi mantentzea, horien kontrola eramatea eta herritarrek horiek non dauden eta nola erabiltzen diren jakitea. "Normalean etxe hauetan sua lehenbailehen itzali beharra da, oso azkar zabaltzen hasten denean oso zaila delako salbatzea", dio profesionalak. Horregatik, herri guztietan uraren harguneak eta mangerak izatea garrantzitsua izan daiteke sortzen diren suteak azkar itzali ahal izateko.

Gauza bera azpimarratu du Arrarasko herritarrek ere. "Saldiasen, adibidez, suteetarako ekipo guztia karrotxo batean dute gordeta, behar denean toki batetik bestera mugitzeko erraztasun osoa izateko", dio. Zirkuitua, mangerak eta grifoak ere txukun mantentzea garrantzitsutzat jotzen du. Arrarasko lehen sutea gertatu zenean zenbait grifo kaskatu xamar zeudela ikusi zuten, baina funtzionatu funtzionatzen zuten. "Noski, hasieran uste genuen dena gaizki zegoela, baina gerora ikusi genuen momentuko nerbioak izan zirela bereziki guk asmatu ez izana eragin zutenak". Gerora iritsi ziren suhiltzaileek arazorik gabe lortu zuten bertatik ura hartzea.

Momentuko larritasunarekin zail izaten da sarritan egoera ongi kudeatzea eta zer egin jakitea. Horregatik, bai herritarrek bai suhiltzaileak aipatu dute egokia litzatekeela herritarrekin ikastaro txikiak egitea horrelako momentuetan nola jokatu eta materiala nola erabili ezagutarazteko. "Urtean behin simulazio bat egitea ere ongi legoke", gehitzen du Ezkurak.



▲ 11 suhiltzaileen parke daude Nafarroa osoan zehar

Nafarroaren eguna

Apirileko azken igandean Nafarroaren Eguna ospatzen dugu urtero Baigorriin. Noiz eta nola hasi zen ospakizun hau? Horixe ikasiko dugu ondoko lerroetan. Kasu, beheko ariketarako hamar H nahita ebatsi baititugu...

Franko il ondoren hasi ziren mugaren bi aldeetako herriak euren arteko harremanak sortzen. Horrela, Baigorri eta Tafalla herriak senidetu ziren. Tafallako alkateak Aldudeko alkateak gonbidatu zituen lehen Nafarroaren Eguna ospatzera. Udalak antolatua izan zen, beraz, lehenbiziko Nafarroaren besta hura. Mugaren bi aldeetako Nafarroak elkartzea zuen elburu.

Geroago, egoera politikoaren goraberak tartean, ospakizunak ez zuen segidarik izan erakundeen aldetik. Bai, ordea, Baigorriko herritarren aldetik, zenbait gazteren ekimenez erabaki baitzuten ospakizunarekin aurrera egitea. Mila bederatzieun eta iruretan ogeita emezortzigarren urtea zen.

Gaur egun, Baigorriko Basaizea Kultur Elkartek antolatzen du Nafarroaren Eguna. Bestak eta aldarrikapenak bat egiten dute ekitaldi jendetsu eta ezagun onetan: mugaz gaindi, nafarren arteko lokarriak azkartzeko eta euskararen alde aritzeko tresna baliagarria da egun hau.

laz, urte askoren ondoren lehen aldiz, ezin izan zen Nafarroaren Eguna ospatu, koronabirusak eragindako itxialdian geundelako. Aurten ere, zoritxarrez, ez da ospakizunik egin apirilean. Ea hurrengo urtean elkartzetik eta ospatzetik badugun!



Nafarroaren Eguna Baigorriin ▲

De Rerum Natura

@zaldieroa





Ariketak

A) Beheko hitzen esanahi berekoak goiko testuan bila itzazu:

1. SENDOTZEKO _____
2. JARRAIPENIK _____
3. LOTURAK _____
4. MUGAREN BIALDEETAN _____
5. HONDAR _____
6. XEDE _____

B) Zein ote dira h-a falta duten 10 hitzak?



Kartel zaharra ▲



▲ Dantzariak



Astra Zenecarekin txertatu dituzte 60 eta 65 urte bitarteko herritarrak

Apirilaren 9an jaso zuten Astra Zeneca txertoaren lehenengo dosia 60 eta 65 urte bitarteko eskualdeko herritarrek, eta uztaiera arte itxaron beharko dute bigarrena jasotzeko. Gainera, apirilaren 8an Pfizer txertoaren lehenengo dosia ere jarri zieten 70 eta 79 urte bitarteko herritarrei eta bigarrena 80 urtetik gorakoei.

Osasun Etxetik esan digutenez, oraindik ez dago datarik (apirilaren bukaeran galdetuta) baina txertatzen hurrengoak 66 eta 69 urte bitartekoak izanen dira. Horrela iragarri du Nafarroako Gobernuak, Munduko Osasun Erakundeak adin tarte horretakoei Astra Zenecarekin txertatzeko aukera eman ondoren. Covid-19aren kontrako Astra Zeneca txertoa hasiera batean 55 urte artekoei jartzeko irizpidea ezarri zen, baina ondoren 65 urtetara zabaldu zenez 60 eta 65 urte bitartekoak deitu zituzten. Lehenengo dosia eman zitzaien Ultzaman, eta aurrerago, 69 urte artekoei ere marka horretakoa jarriko zaie, baina, esan bezala, oraindik ez da datarik iragarri.

Osasun langileek txertoak prestatzen,
Ultzamako Udaleko sare sozialetatik hartua




Horrela, ia 600 herritar deitu dituzte honezkero Covid-19aren aurkako txertoa jasotzeko. 80 urtetik gorakoei martxoaren 18an jarri zieten lehenengo, eta apirilaren 8an bigarrena, Pfizer markakoa. Adin tarte horretako 180 herritar deitu zituzten. Haiekin batera, Pfizerreko lehenengo dosia jaso dute 70 eta 79 urte bitarteko 200 herritarrek baino gehiago.

Azkenik, Astra Zenecako txertoa jarri diete 60 eta 65 urte bitarteko 180 herritarrei apirilaren 9an. Enpresa honetako txertoak denbora gehiago behar du bigarren dosia jartzeko, eta uztaiera arte itxaron beharko dute bigarren dosia jasotzeko. Ingalaterrako txerto honek eragin dituen zalantzenatik urduritasuna nabaritu zen frontoian, antolakuntza lanetan zebiltzan herritarrek esan digutenez. Ez zen ezusteko erreakziorik gertatu, dena den.

Itsasoko Martin Antsorena topatu genuen txertatuen artean, eta berak ere aitortu zigun beldur pixka batekin zela: "urduri etorri naiz, bai, hedabideetan entzundakoarekin beldur, baina ongi nago, ez dut ezer arrarorik sumatu. Paracetamol bat hartu dut etorri baino lehen, Osasun Etxetik gomendatu bezala".

Txertaketarako antolakuntza lanetan hogeit hamar inguru aritu dira lanean egun bakoitzean. Aipatu zigutenez, ezusteko bakarra apirilaren 9eko jardunaldian izan zen, Astra Zenecako txertoa berandu iritsi baitzen. Txertoa jaso behar zuten herritarrek ordu erdi itxaron behar izan zuten: "9:30ean zeuden deituta herritarrak, baina 10ak aldera iritsi zen txertoa. Pilaketa gutxi batzuk egon dira goizean, baina jarraian hasi gara eta ondoren arin-arin joan da dena", zioen Benito Alberro boluntarioak.



15 minutuz itxaron behar da txertoa jaso ondoren, erreakziorik balego



Bihotzekoak artatzeko desfibriladoreak jarri dituzte Odietako zortzi herrietan

Udalak iragarri zituen desfibriladoreak honezkero jarrita daude Odietako herri guztietan eta gainera 40 lagunek jaso dute ikastaroa.

Bihotz-gelditzea artatzeko makinak dira desfibriladore deiturikoak. Bada, Odietako zortzi herrietan jarri dute bana: Anotzibarren, Erripan, Gaskuen, Gelbentzun, Gendulainen, Latasan, Ostitzen eta Ziaurritzen.

Makina bera jarraitu beharreko pausoak banan banan adierazten joaten da, baina dena dela, udalak ikastaroak antolatu ditu eta sekulako arrakasta izan dute: 40 bat lagunek parte hartu dute horietan, eta beraz, herritar ugari ikasi dute desfibriladorea erabiltzen.

Dakigunez, Odieta ez da desfibriladoreak jarri dituen bailara bakarra. Esate baterako, Imotzen ere jarri zituzten pasa zen urtean; Etxalekun, Oskotzen, Muskitzen eta Latasan, hain zuzen ere.



▲ Desfibriladorea, Erripan

Axuriak agertu dira lepoa moztuta Ultzamako hainbat gunetan



▲ Axuriak lepoa moztuta agertu dira Ultzaman

Polizia Foralak tuitarren mezua argitaratu du, gertaera argitzeko asmoz. Txio horretan salaketarik jaso ez dutela azaltzen zuen poliziak, baina zerbait gehiago zekien herritarrik balego haiekin kontaktuan jartzeko eskatu dute, animalien aurkako indarkeria izan daitekeelako.

Axuria lepoa moztuta agertu dira Ultzamako hainbat tokitan, guztira lau animalia azken hilabete eta erdian. Erriparako eta Ostitzerako bidea adierazten duen seinalean eta Alkotzen agertu dira animaliak, besteak beste.



iritzia



Onintza Enbeita

Berria

Argazkia

2021eko apirilak 27

Autoritateak Gernikan daudela esan zigun erosle batek. Atzoko eguna seinatua da, eta normala egin zitzaigun. 84 urte igaro eta gero, Gernikak ez du gertatutakoa ahazten, baina azokak ez zuen pisu berezirik hartu atzo. Duela 84 urte, astelehenez erre zuten Gernika. Inguruko ekonomian garrantzi handia izan du Gernikako azokak: bai orduan eta bai gero. Orain, ordea, ez dio inori ardura zer eta nola ekoizten den. Urteko edozein garaitan jan dezakegu gura duguna. Egutero bonbardatzen gaituzte janari merkeari buruzko iragarkiekin. Egutero metrailatzen gaituzte astelehenero azokara joaten garenok: garesti saltzen dugula, formula intentsiboetara jo behar dugula, denetatik apur bat izateak ez duela balio, garaian garaikoa tristea dela neguan, tximurregi daudela tomateak udan... Duela 84 urte Gernika utzi zutena baino erreago nahi dute lehen sektorea, kiskalita astelehenetako azoka, haustuta bertatik bertarako ekonomia.

Atzo baneukan autoritateok azokara hurbilduko ziren esperantza, baina ez ziren etorri. «Hemen ez dago interesatzen zaien ezer», esan zidan batek. Eta «hauteskunde kanpainan etortzen dira, bada!», erantzun nion. Baina ez da azoka memoria ariketa interesgarria, antza, nondik gatozen eta nora eraman nahi gaituzten ulertzeko. Argazki latzegia, agian.

Mendialdeko azoka ibiltaria, berriz martxan

Pasa zen urtean egin zen ekimen honen lehenengo edizioa, eta izandako arrakasta ikusita, izurritea tartean izan arren, aurten ere errepikatzea erabaki dute Cederna Garalurrek eta Mendialdeko ekoizleek.

Apirilaren 25ean izan behar zuen lehenengo hitzordua, Leitzan, baina bertan asteburuan izandako koronabirusaren hedapenaren igoerarengatik, bertan behera uztea erabaki zuten eta ekainaren 6an da egitekoa. Azarora bitartean, dena den, zortzi herri gehiagotik ere pasako da. Gurean Imotzen, Basaburuan eta Atetzen izanen dugu, gorde ongi datak!

Maiatzak 9, igandea, Araitz

Maiatzak 23, igandea, Aldatz (Larraun)

Ekainak 6, igandea, Leitzan (Habelarteren aurkezpena)

Ekainak 20, igandea, Goizueta

Uztailak 4, igandea, Latasa (Imotz)

Uztailak 25, igandea, Basaburua

Abuztuak 14, larunbata, Areso

Irailak 18, larunbata, Atetz

Azaroa 7, igandea, Lekunberri



Azoka ibiltaria, Leitzan, pasa den urtean



Osasun etxeetako lehen arretaren defentsan mobilizazioak, asteazkenero Jauntsaratsen

Nafarroako Osasunaren aldeko Plataformak deituta, asteazkenero mobilizazioak egiten ari dira herri eta auzo ugarian, tartean Jauntsaratsen. Osasun Etxeetako lehen arreta zerbitzuan azken urteotan hartu diren neurri murritzaleak salatze eta kalitatezko eskaintza baten alde egiteko biltzen dira.

Urrian hasi ziren asteazkeneko mobilizazioekin, eta azarotik martxora bitartean geldialdia egin bazuten ere, martxoan berriz hasi dira elkarretaratzeak egiten, Osasun Kontseilaritzatik haien eskaerei erantzunik eman ez dietelako. Pandemia baino lehenagotik Osasungintzako lehen arreta zerbitzua egoera kaxkarrean bazegoen, Covid-19aren krisiak lehenagoko gabeziak indartu besterik ez dituela egin salatzen dute plataformako kideek. Gure eskualdean orain arte asteazkenero 11:00etan elkartu dira, baina maiatzetik aurrera eguerdiko 12:00etan egingen dituzte elkarretaratzeak Jauntsarasko Osasun Etxe parean.

Bestetik, maiatzaren 15ean Iruñean manifestazioa ere deitu dute Osasun Plataformatik, eta herritarrei bertan parte hartzeko dei egin diete. Arratsaldeko 17:00etan izango da mobilizazioa.



▲ Jauntsarasko elkarretaratzeetako bat

Nafarroako parke eolikoek proiektuen kontrako helegiteak aurkeztu ditu Sustrai Erakuntzak



▲ Bost parke eoliko eraiki nahi dituzte Nafarroako eskualde desberdinetan

Gure eskualdean Anotzibarri (Odieta) eta Etsaini (Anue) eraginen lieke Nafarroan eraiki nahi dituzten parke eoliko horietako bik. Hain zuzen, hiruna errota joanen lirateke bi herri horietan. Anotzibarren proiektuaren aurka agertu dira herritarrek, eta Haize Berriak plataformaren baitan antolatu dira basoen eta energia burujabetzaren alde egiteko. Sustrai Erakuntza Fundazioak jakinarazi duenez, azken asteetan Nafarroako eguzki- eta eoliko-poligonoen aurkako alegazioak aurkeztu dituzte, eta herritarrei ere horretarako gonbidapena luzatu diete.

Hain zuzen, 36 dira Nafarroan enpresa desberdinek esku artean dituzten inpaktu eta tamaina handiko proiektuak. Eguzki- eta eoliko-poligono horiek arrazionaltasunik gabe planteatzen ari direla salatu dute fundaziotik, eta baita inolako plangintza demokratikorik gabe ari direla aurrera eraman nahian. Horregatik, proiektu guztiak gelditzeko eskatu diote Goberuari, beharrezkoa den eredu energetikoaren inguruko hausnarketa egin ahal izateko.



Euskararen aldeko ziklo arrakastatsua egin dute apirilean Imotzen

'Apirilean euskara indartuz' lelopean, ekimen ugari antolatu dituzte Imotzen apirilean zehar. Imozko Berdintasun, Euskara, Kultura eta Kirol batzordeak antolatu du egitaraua, eta herritarrek jakinarazi digutenez, arrakasta handia izan dute ekimen guztiek.

Apirilaren 11n zen hastekoa zikloa, Etxalekun barna herriko historia eta natura ezagutzeko antolatua zuten ibilaldiarekin. Ordea, eguraldi kaxkarra zela eta,



▲ Koplariak Koplari

atzeratu egin behar izan zuten ekimena. Apirilaren 17an, Edorta Amuruak kontzertua eskaini zuen Erasoko Zaparen etxolan, eta euskal kantagintzako harribitxiak entzuteko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren herritarrek.

Apirilaren 18an eskualdeko bertsolarien bertso saioa izan zen Oskozko plazan: Endika Legarra, Jabi Lezaun, Joana Ziganda, Mintxo Astiz eta Aitor Irastortza aritu ziren kantuan. Saio ederra izan zen, eta eguraldia lagun, plaza bete-betea egon zen. Apirilaren 23an, beste kontzertu batekin gozatzeko aukera izan zuten imoztarrek, kasu honetan Goldarazko frontoian: Xabier Amuriza bertsolariaren eta Korrontzi taldeko Agus Barandiaranen Koplariak Koplari ikuskizuna egon zen bertan, eta 80 pertsona inguru hurbildu ziren. Arrakasta handia.

Zikloari amaiera emateko, apirilaren 25ean, gazteendako Escape Rooma izan zuten Muskizko Itsasoenean.

Amaitu da paleta goma eta frontenis txapelketa

Apirilaren 9an eta 10ean jokatu ziren aurtengo pala eta frontenis txapelketako finalak Latasan (Imotz). Ilbeltzan abiatu zen txapelketa, eta urte arraro honetan, atzerapenak eta azkeneko momentuko alaketak tarteko, azkenean jakin dugu nortzuk diren garaileak. Palako lehen mailan Mugaireko Arizmendi eta Goñi izan ziren txapeldun, bigarren mailan Narbarte deko Asiain eta Gaztelumendi, eta nesken frontenis txapelketan Lizarragako eta Etxarri-Aranazko Uxue eta Olaia.

Hauek izan ziren finaleko emaitzak:

Pala bigarren maila

Gurrea eta Goldaratzena (**Lekunberri**) **13 - 30** Asiain eta Gaztelu (**Narbarte**)

Nesken frontenisa

Uxue eta Olaia (**Lizarraga / Etxarri-Aranatz**) **25 - 18** Izaskun eta Alazne (**Narbarte**)

Pala lehen maila

Loidi eta Beloki (**Andoain**) **13 - 30** Arizmendi eta Goñi (**Mugaire**)

Mikel Jaunarena 'Zepelo' kirol batzordeko kideak balorazio ona egin du aurtengo txapelketaz: "Balorazioa oso ona da, bai. Ez dakigu egoerarengatik izan den baina inoiz baino jende gehiagok eman du izena txapelketan".

Zepelok antolatzen duen azken paleta eta frontenis txapelketa izan da hau. Izan ere, ia 30 urteren ondoren, bere ibilbidea amaitutzat eman du Kirol Batzordean. Laguntzen jarraituko duela adierazi digu, dena den, baina batzordetik kanpo. "Urte asko dira eta urtea luzea egiten zait, txapelketa bat bestearen atzetik antolatzen ditugu, batzordetik kanpo ere Gartzarongo Pilota Txapelketaren antolakuntzan nabil...".



▲ Frontenis txapelketako finalistak

Eltzaburuko eta Orokietako ostatuak, enkantean

Eltzaburuko ostatuaren kasuan, maiatzaren 6a arte egonen da zabalik eskaintzak egiteko epea, eta ale honen itxieran, kontzejuak esan digunez, bat bera ere ez dute izan. Esleipenaren prezioa 24.000 eurokoa da. Orain kudeatzen dutenak uztailaren 14a arte egonen dira bertan. Bi urtez aritu dira eta kontratua ez dute berrituko.

Bestalde, Orokietako ostatua ere atera dute enkantean, eta honakoan ere ez dute eskaintzarik jaso momentuz. Ernaizu kooperatibak kudeatu du Orokietakoa azken lau urteetan Apeztegiberriko dendarekin batera, baina egungo egoerarengatik ezin dituzte biak aurrera eraman eta Orokietakoa uztea erabaki dute. Orokietan ostatua baino gehiago jarri

zuten martxan, arrakastatsua izan den eskape joko aretoa ere izan baitute, eta herrian edo Basaburuan barna egiteko ginkana moduko jokoak ere antolatu dituzte.



▲ Orokietako ostatua



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



*eta.... Ostegunero
sak aldera Pintxo Pote*



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Isabel

Oiartzun Azpiroz

Beste era bateko irakaslea

Urte luzez Larraintzarko ikastetxean irakasle izan zen Isabel Oiartzun Azpiroz. Eta ia hamarkada bat jubilatuta daraman arren, oraindik gogoratzen dute ikasle askok. Arrazoietako bat: Amati basoa izan ohi zuen "ikasgela". Jatorriz Erripako Karakotxekoa da Oiartzun, baina Aritzun bizi da. Han, nahiz eta erretiratuta egon, ez da geldirik egoten. Egunero ikasten jarraitzen du irakasle ohiak, gehienbat mendian. Besteak beste, loreez gehiago ikasteko argazkiak ateratzen dizkie.

Isabel Oiartzun Azpirozek bederatzi urte daramatza jubilatuta, baina bere ikasle ohi batek baino gehiagok aipatu dizkigu berarekin izandako klase bereziak. Berari ere esan diote arrastoa utzi zuela ikasleen artean: "Behin esan zidatenez, nire ikasle ohi batek, txirrindulaz ibilbide bat egiten ari zela, beste bati esan omen zion: 'ez ahaztu Isabelen ikasleak izan garela, eta natura behar dugu'".

Hain zuzen ere, tutorea izandako irakasle hau gogoratzeko arrazoietako bat hori da: maiz ikastetxetik ateratzen zituen ikasleak, ikasgai ezberdinetan ikasi behar zituztenak naturan aplikatu ahal izateko. Ikasgelan ere, liburuetatik harago doazen irakaskuntzak jartzen zituen praktikan. Adibidez, hauteskundeetako kutxetan txitategia egin zuten behin.

“ Nik guztiok dislexikoak bagina bezala irakasten nuen, gauzak ukituz, ikusiz ”

Gauzak beste modu batera ikastea

"Txikitan zientzietako oso irakasle ona izan nuen. Erdaraz esaten zigun: 'liburuan dagoena errepikatzen duenari 5 bat jarriko diot, esfortzu hori egiteagatik. Baina nik ez dut loritorik nahi, zuen buruari eragitea nahi dut'. Adibidez mineral bat ekarri eta deskribatzea eskatzen zigun azterketan". Berak arrastoa utzi duen bezala, berari irakasle hark utzi zion arrastoa: "Berarekin oso nota onak ateratzen nituen; gero irakasle ikasketak egin nituenean, ordea, larri ibiltzen nintzen, gauzak buruz ikastea eskatzen zigutelako".

Horregatik, behin irakasle bihurtuta, ezin zituen testu liburuak

jarraitu, beste era batera irakatsi nahi zuen: "Adibidez, hirugarren mailan lur mota ezberdinak ikasi behar ziren. Nik Amatira eramaten nituen ikasleak, eta ez nien esaten lurra ikasiko genituenik, baina esaten nien "konturatzen zarete zein kolore ezberdinak dauden lurrean?", eta aztertu egiten genituen".

Bera lanean hasi zen garaian metodologia berriak zabaldu omen ziren: "70. eta 80. hamarkadan dislexia kasuak puri-purian zeuden, eta ikasle horiendako zuzendutako metodo berriak aplikatzen hasi ziren. Baina metodo horiek ez dira onuragarriak dislexia dutenendako bakarrik, nik guztiok dislexikoak bagina bezala irakasten nuen, gauzak ukituz, ikusiz".



Sustraiak proiektuak hainbat erakusketa antolatu ditu Larraintzarko Bentan, ikasleen lanak erakusteko



Mendia laborategi

Gauzak ikusteko eta ukitzeko mendiak aukera asko ematen dituela uste du, horregatik eramaten zituen maiz ikasleak Amaira. "Gauza gehienak mendian bururatu zaizkit. Senarrak esaten dit mendiak obesitatetik, depresiotik eta asperduratik salbatu duela, eta egia da".

Eta basoan ez zuten naturari buruz bakarrik ikasten, Oiartzunek azaltzen digunez matematika edo geometria ere ikasi daitezke: "Badakizue naturan beste gauza batzuen itxura hartzen duten gauzak jaiotzen direla... Behin nartzisoak edo negu-txilintxak ikusten ari ginela, deskribatzea eskatu nien, eta neska batek esan zidan: "zutoinak eta loreak ia-ia angelu zuzen bat egiten dute". Neska horrek ongi barneratu zuen angelu zuzen bat zer den. Distantziak neurtzen, zuhaitzen enborren diametroa hartzen... gauza asko ikasi daitezke".

Hirian ere, aukera ugari

Landa eremuan naturguneak eskura ditugu, eta hori aprobetxatzea ezinbestekoa da Oiartzunendako, baina esaten digunez hirian ere gauza asko ikasi daitezke. "Hirian ere ikastetxetik atera eta gure kaleak ezagutu daitezke: auzoetako dendak aztertu edo prezioak ikasi, adibidez. Behin Iruñera joan ginen eta denbora libre eman genien. Ezin zuten dirua eraman baina guk pezeta batzuk eman genizkion bakoitzari. Merkatura joan ginen eta bakoitzak laranja poltsa bat erosteko diru nahikorik ez zuenez, dirua bateratu eta horrela erosi zuten. Hori oso polita izan zen, estrategia berriak ikasten dituzte".

Ikasgelatik atera gabe ere, testu liburuak alde batera utzi eta ikasitakoa praktikan jar daiteke, hobeto barneratzeko, 'txitigailua' egin zutenean bezala. Orduan ez zen bere ideia izan: "Atezain batena izan zen, baina ez dut izena gogoratzen. Hauteskunde kuxkak ikusi zituen

“ **Hirian ere ikastetxetik atera eta gure kaleak ezagutu daitezke** ”

eta esan zuen, horrekin txitigailu bat egin daiteke, eta aurrera egin genuen horrekin".

Inplikazio handia eskatzen zuen txitigailuak, baina merezi zuen: "Egunero-egunero joan behar ginen dena ongi zihoala ikustera, ...asteburuetan ere joaten ginen! Hori gurasoen laguntzarekin egin behar genuen, eta haien inplikazioa ikusteko ere balio izan zuen. Ikusi behar zenituzten laugarren mailakoak beraien artean besarkatzen, neska eta mutilak! Noiz ikusi duzu hori! 10 minuturo txandak egiten genituen txitigailua zaintzeko, eta ikustekoa zen nola egoten ziren, mugitu gabe, begira-begira, pazientzia osoz, txitak noiz jaioko ziren zain".



Umeak basoan. ehige.eus, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioko webgunetik hartua ▲



Maketek ere, esate baterako, ikasteko asko laguntzen dutela azaldu digu Oiartzunek ▲

Gaur egun

Larraintzarko ikastetxean, Sustraiak guraso elkarteak Luis Lizarribar irakaslearekin elkarlanean Sustraiak proiektua jarri du martxan, eta jarduera ugari egin dituzte naturan: Abauntzeko kobazuloaren sarrera txukundu eta garbitu zuten auzolanean, eta zuhaitzak identifikatzeko ere txangoa egin zuten.







Bertsoak

paratzen

Bost bertsolari eta 50 ikusle inguru bildu zituen Oskozko bertso saioak

Bertsolaritza bizirik dela ikusi ahal izan genuen Oskotzen apirilaren 18an. Eskualdeko eta inguruko bost bertsolari bildu ziren bertan: Oskozko auzokide berria den Jabi Lezaun iruindarra, Iruñeko Mintxo Astiz, Azpirozko Aitor Irasortza, Goldarazko Endika Legarra eta Oskozko bertako Joana Ziganda. Eta haiek ikusteko 50 bat herritar, haien artean gazte ugari. Gai jartzaile Alazne Fernandez de Muniain izan genuen, eta lan bikaina burutu zuen. Gaien artean landa eremuko ohiturak eta bertara datozen hiritarrak, besteak beste, guztiak Imotzen kokatuak. Joana Ziganda eta Endika Legarrarekin solas egiteko aprobetxatu dugu Pulunpen.

JOANA ZIGANDA:

Zu oskoztarra izanda, zure herriko plazan eta gertuko bertsolariez inguratuta, nola bizi izan zenuen bertso saioa?

Oso polita izan zen, egia esan ez genuen horrelako erantzunik espero, eta jende asko etorri zen, espero genuena baino gehiago. Saio oso polita atera zela esango nuke. Niretzako oso berezia izan zen. Gure herria ez da bereziki bertsozalea eta bost bertsolari biltzea eta plaza beteta ikustea, oso-oso polita izan zen.

Hainbat eta hainbat gai jorratu zenituzten, baina landa eremuko bizimodua, esate baterako, dezente aipatu zen, ezta?

Gai-jartzaileak, Alaznek (Fernandez de Muniainek) lan oso ona egin zuen, eta nahiz eta gai asko jorratu zituen denak zeuden Imozko testuinguruan kokatuak. Gaien artean bazeuden, bai, hiritik herrira datorren jendea, herrietako ohiturak... denetatik atera zen, guretzako oso interesgarria izan zen.

“Nire ibilbidean dena izan da sorpresa bat”

Hori bai, zu emakume bakarra izan zinen.

Bai, badago lana. Saio hau egiteko esan zigutenean, hasierako proposamena inguruko eta eskualdeko bertsolariekin egitea izan zen. Eta eskualde txiki honetan ni nago emakume bakarra bertsolaritzan. Argazki hori ez dago gaur egungo argazkitik oso urruti, badago lana egiteko, gero eta emakume gehiago daude oholztan baina proportzioa ez da oraindik orekatu eta badugu oraindik zer egin bertso munduan, herrietan eta gizartean orokorrean.



Joana Ziganda

2019ko Nafarroako bertsolari txapelketako finalaurrekoetan, Atarrabian, bota zenuen agurrean “Emakume begi konplizez egindako ahalegin hau, zuentzako da nire bertsoa”, lagundu egiten diozue elkarri bertso munduan?

Nik nire ibilbidean oso harreman ona izan dut kide guztiekin, bai gizonezkoekin bai emakumezkoekin, baina konplizitate horiek laguntzen dute hainbat egoera ulertzen eta aurre egiten eta oso kontziente botatako bertsoa izan zen, bai.

2019ko Nafarroako bertsolari txapelketa aipatu dugu, espero gabe iritsi zinen orduan finalaurrekoetara ezta?

Nire ibilbidean dena izan da sorpresa bat. Oholtza 30 urte inguru nituela zapaldu nuen lehenengoz, lehendabizi Bardoetan, gero lagun arteko saioetan eta txapelketan bi aldiz parte hartu dut. Txapelketan sartzearekin eta saio batean parte hartzearekin ia pozik nengoen eta aurrekoan finalaurrekoetara iritsi nintzen, bai. Lan handia egin nuela ere egia da, baina poza handia izan zen.



Heldu hasi zinen bertsolaritzan, hori oztopoa edo laguntza izan da?

Denetan txikitatik hastea errazagoa izaten da, baina denak izango du bere alde ona eta bere alde txarra. Nire espektatibak ez ziren oso altuak eta horregatik ere dena ongi etorria izan da, eta bidean gauza on asko aurkitu dut, oztopoak eta zailtasunak ere bai.

Oraingo egoeran, plazan aritzeko zein aukera dituzue?

Ni ez naiz izan astebururo plazaz plaza aritzen den bertsolari horietako bat, beraz, niri ez dit gehiegi eragin, baina argi dago bertsolaritzan izurriteak eragin zuzena izan duela, hilabetetan nahiko geldirik egon da. Horregatik, Oskotzen egin zen

bertso saioa bezalako jarduerak antolatzea oso garrantzitsua da garai hauetan. Bertsolaritza oso segurua da, gozamina ekartzen duen jarduera da eta antolatuta ongi ateratzen da. Ez du inolako arriskurik. Orain ari da zerbait mugitzen, baina zenbat eta gehiago izan, hobe.

ENDIKA LEGARRA

Noiz eta nondik nora hasi zinen bertsotan?

10 edo 11 urterekin hasi nintzen eskolan, eta bertso eskolan 15 urte inguru arte aritu nintzen. Gero erabat utzi nuen, eta 20 urterekin, unibertsitate garaian Gasteizen bizi nintzenean ekin nion berriz. Karrera bukatutakoan Barañaingo bertso eskolan sartu nintzen eta orduan hasi nintzen plazetan kantatzen. Hor jarraitzen dut orain ere, 8-10 bat lagun elkartzen gara, eta gustura nabil.

Txapelketetan aritzen zara, edo plazaz plazakoa gehiago gustatzen zaizu?

Bi urtean behin egiten da txapelketa, justu orain zen egitekoa baina pandemiagatik atzeratu egin da. Hori dela eta Zapla! ekimena jarri da martxan. Txapelketa beste saio mota bat da, baina

egia da saio gutxi egiten ditugun bertsolariontzat erakusleioa dela, aukera bat gerora plazetan kantatzekoa. Plazako saioek beste giro bat izaten dute, lasaiago aritzen gara kantuan eta gauza desberdinak egiteko aukera ematen dute, txapelketa zurrunagoa da horretan, baina niri biak gustatzen zaizkit.

Koronabirusaren egoera honek nola eragin dizue bertsolariei? Saioak lortzeko zailtasunekin ibiliko zarete, ezta?

Bai, pandemiak justu Nafarroan Bardoen txapelketa egiten ari ginela harrapatu gintuen, eta bukatu gabe gelditu zen, gero udazkenean amaitu genuen azkenean. Gero irratietan bertso saioak egiten saiatu ginen pandemian, eta udazkenean ere zerbait egin zen, mugatuta izanda ere. Saio mota batzuei nabarmen eragin die, adibidez, bertso afariei edo bertso

“Txapelketak erakusleio dira saio gutxi ditugun bertsolariontzat”

poteoei. Orain ezin da horrelakorik egin, eta dena bertso saio klasikoen formatura mugatzen da. Egia da saiakerak egiten ari direla, Zapla! ekimenean Nafarroako bertsolari guztiok edukiko dugu Nafarroako herrietan barna eginen diren saioetako batean kantatzeko.

Zer moduz joan zen Oskotzen egin zenuten Imozko bertso saioa? Berezia izanen zen...

Etxean kantatzea izan zen, eta hori berezia da. Gainera, ilusioa egiten du Imotzen bertako jendearekin bertso saio bat antolatu ahal izateak, horrek esan nahi du badagoela bertso mugimendua. Saioa ere oso polita atera zela uste dut, gustura aritu ginen, jendea ere bai, eguraldi ona izan genuen, publiko aldetik erantzuna ona izan zen... oso gustura.

Ez zara Imotzen bizi baina bertan dituzu susturriak, sentitzen duzue gure eskualdearekin loturarik?

Bai, aita Goldarazkoa dut eta bertan pasatzen ditugu tarteka asteburuak. Iruñekoa naiz berez, Txantreakoa, baina badut lotura berezia Goldaratzekin, eta neurri batean goldaraztar ere sentitzen dut nire burua.



▲ Endika Legarra, Goldarazkoa, Oskozko bertso saioan bertsoa botatzen



1928ko Oskozko berri

IMOTZ

Berri zenbait

Oskozko berri El Pensamiento Navarro deitu egunkarian topatu dugu, 1928ko maiatzeko bi berritan. Horko berriak Udalean bildutako datuekin osatu ditugu.

Artikulutxo batean, hasteko, dio, nola lore hilabetea aurrera darraien.

Gero, aipatzen du nolako eguraldi txarra den, eguna joan eta eguna etorri, beti euria. Maiatzari ez dagozkionak, atertu gabe ari baitu. Atertu gabe baino zehatzago esanez, egunero botatzen duela euria, behin baino gehiagotan gainera, eta nekazari gaixoa hor dagoela kezkatutik, artoa eta banabarrak ereiteko baititu. Eta zenbaitzuk patata ere bai, eta erein duenak, lur txarrarekin, beldur izatekoa delarik jaio ere jaioko ez dela. Gaixoa nekazaria!

Pilota

Ondoren dio, futbolik ez dela izaten hemen eta, zorionez, zine eta teatrorik ere ez. Eta horrela batek atsegin hartzen duela pilota partidak izaten direnean, gehiago, kontutan harturik, kirol hau apaltzen-apaltzen ari denean ibar hauetan. Eta aipatzen du, "denok", baina denok dugula obligazioa kirol honen hedatzen laguntzeko.

Eta gero aipatzen du nola ikasi duen hurrengo igandean jokatu beharreko pilota partidaz, arratsaldeko 5etan. Hilaren 27a, ia seguru. Pilota partida Etxalekuko pilotalekuan izanen dela eta pilotan ari beharrekoak, honako hauek:

Bernarbe Huarte Goñi, 1881eko ekainaren 11n sortua, Gulinakoa, luzeroa, 1924. urtean etorria.

Urtzategian bizi zen eta 47 urte bete behar zituen (Idatzian Bernardo jarri du, baina Bernabeda)

Jesus Larunbe, Ziakoa. Honek ere urte saila izanen zuen.

Pilotari zailduak biak ere, eta "momentu atseginak pasaraziko dizkigute beren jokaldiekin", dio.

Beste partidaren bat ere aurki izanen dela gehitzen du.

Eta bukatzeko:

"Animo, pilota zaleok, egin partidak, eutsi behar diogu eta herri hauetan den kirol bakar honi"

Bernabe, urte luzez, zahartu artio, aritu zen pilotan Etxalekun. Igandero, arratsaldeetan, hemen izaten zen lhabengo bentako "Gazolaz" zenarekin buruz buru jokatzeko. Teatroa eta zirku ederra igandero, jendea parrez jartzeko.

Loreen hilabetea. Oskozko aingerutxoak eta besterik

1928ko maiatzaren 27an, igandea, agur ofiziala eman zitzaion Maiatzari, loreen Erreginari eskainitako hilabeteari.

Udaberriko egun seinalatua, urteroko ohitura, zeremoniaz betea. Horrela, goizez, goizean goiz, 7etan, goiz-meza errezatua izan zen, ohi bezala, eta **Mariaren alaba** guziak han ziren, komunioa hartzerakoan. Beste hainbat eliztar ere bai.

Mariaren alabek motete eder batzuk kantatu zituzten.

Goizeko 9etan meza nagusia.

Bai aurreko meza eta bai meza nagusiaren emalea, herriko apezka izan zen, Don Gabriel Ziganda Etsain, Larraintzarko **Perusteneko** semea.

Atsaldeko arrosarioa eta prozesioa.

Atsaldeko lauetan, arrosarioa errezatua izan zen, eta gero **aingerutxo**en lore eskaintza eta zenbait kantu eskaini zituzten, maiatzeko festa egun guzietan bezala.

Hona hemen zein ziren sei aingerutxoak:

Maria Carmen Gerendiain Beloki, 1918ko azaroaren 12an jaioa, 9 urtekoa, **Dindekoa**.



Urtzategiko atea, Bernabe bizi zen etxea. Hor ageria da luzeroaren anuntzioa: Electricista, harrian jarria. ▲



Martina Gerendiain Zia, 1919ko abenduaren 11n jaioa, 8 urtekoa, **Zurgiñen etxekoa**.

Maria Mercedes Alegria Villanueva, 1922ko urtarrilaren 31n jaioa, 6 urtekoa **Herrikoetxekoa** (Ostatua)

Natividad Lakuntza Gerendiain, 1921eko abenduaren 25ean sortua, 6 urtekoa, **Eskaregikoa** (Arotzaren etxea)

Josefa Azpirotz Lizaso, 7 urtekoa, 1921eko apirilaren 15ean sortua, 7 urtekoa. **Matxinekoa**.

Francisca Goizueta Dimas, 8 urtekoa, 1919ko uztailaren 29an jaioa, **Sastrearen etxekoa**.

Ondoren herrian barna prozesioa, **Maria Sortzez Garbiaren** imajinarekin. Elizatik atera, **Zamargiñenezarrea** eta **Gartzinezarreen** artetik behera, **Eskaregia** eta **Erdabideren** ateen aurretik pasa eta herriko askara. Hemendik behera karreteraino, eta hau segituz, **Juantxeneraino**; eta ondoren buelta.

Imajina, arina, honako gazte hauek eraman zuten:

Antonio Lizaso Urritza, 32 urtekoa, **Martixeneko bordakoa**.

Vicente Lizaso Zia, 24 urtekoa, **Perutxenekoa**.

Jose Azpirotz Lizaso, 23 urtekoa, **Matxinekoa**.



▲ Oskozko elizako ate bikaina, "gotiko" estilokoa eta XIV. mendekoa.

Mariano Elizondo (1)

Eta elizara itzulirik, denei, **Sortzez Garbiaren** medaila eman zitzaion adoratzeko, herri guzia hurbildu zelarik.

Eta azkenik, **Mariaren alaba** asko izanen zen, baina beren gidariak besterik ez ditu aipatzen:

Juanita Iribas Latasa, 26 urtekoa, **Juantxenekoa**.

Felisa Gerendiain Beloki, 24 urtekoa, **Dindekoa**.

Saturnina Intsausti Lizaso, 17 urtekoa, **Martixenekoa**.

Benita Azpirotz Lizaso, 18 urtekoa, **Matxinekoa**.

Oskozko **aingerutxoek** kantatzen zituzten kantuak zein ote ziren? Etxalekun galdezka ibili naiz eta lau kantu behintzat bildu ditut, zein baino zein ederragoak. Oskotzen ere horietakoren bat gutxienez kantatuko zuten. Ea oskottarren batek erdiesten dizkidan Oskozko elizan kantatzen zituztenetakoak. Eskertuko nioke. Hona hemen pare bat, Etxalekukoak:



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Darraien:** jarraitzen duen, segitzen duen.
- **Kirola:** deporte
- **Ibarra:** Valle
- **Aingerutxoak:** Hemen "angelitak", erdaraz deitzen genien.
- **Mariaren alabak:** Hau ere erdaraz esaten zen: Hijas de Maria.
- **Motete:** kantu mota bat.
- **Maria Sortzez Garbia/Orbangabea:** Inmaculada Concepción.
- **Intza:** rocío

AINGERUTXOEK KANTATZEN ZITUZTENETATIK KANTU PARE BAT.

Errepika, bertsoen tartean kantatzen dena.

Goazen, goazen guziok, Birgiña Amagana Eskeintzera biotzez Loretxo eder bana

1

Lore mota guziak
Lurraren gañean
Zure antzeko dira
Edertasunean

2

Parerik ez duzula
Garbitasunean,
Lirio ederrak dio
Arantza tartean

Errepika, bertsoen tartean kantatzen dena.

Goazen goazen guztiok Mariarengana Goazen bai eskeintzera Biotz eder bana. Goazen bai eskeintzera Biotz eder bana

1

Zu zera, gure ama
Birjiña Maria,
Izar eta eguzki
Guztien argia
Aingeruen erregin
Oso miraria
Izan zaitez euskaldun
Denen gidaria (bis)

OHARRA.

"Izan zaitez euskaldun. Denen gidaria"
Nolako sentimenduz eta indarrez egiten genuen bis hori. Nolako sentimenduz! Orain ere oilo ipurdia jartzen zait.



Alaba dut

“Isiltasunak mintzen du”

Eskualdeko ama batek bere testigantza herritarrekin partekatu nahi izan du Pulunpe aldizkariaren ale honetan. Erasoko (Imotz) Dani Martirena Indart kazetariak Sara Quesada Diaz amari eginiko elkarrizketa da ondoko lerroetan aurkituko duzuen.

Agerikoa du lerroburuak mezua. Hortik dario indarra. Isiltasunak mintzen du. Gauza bat ezgauza bilakatzen denez gauza hori aipatzen ez den orotan. Ez mentatzeak egiten du edozer gauza erabat mundutik desagerrarazi. Hamaika dira ari garenaz adibideak. Indarkeria pairatuta duen emakumea isilarazten denean, bi bider mintzen da bera, gatz botaz bere oinazera, bide batez desagerraraziz halaber, emakumea eta bere mina aldi berean. Memoria historikoak ere ematen digu isiltasunaren kaltearen neurria. Luzaroan izan direnez euren minak isilaraziak ere. Ukatuak. Ezabatuak. Norbera den bezala aitortzen ez denean ere, orduan isiltasuna gailentzen da izanaren gainean eta, honen ondorioz, are mingarriagoa bilakatzen da izatearen izana. Dagokigun honetan, ama batek bere isiltasuna gaingitu nahi du. Hemen, erabaki honen arrazoia: bere alaba zakildunaren erabateko aitortza, lau haizeetara emana. Honen beharra du amak, bere alabarengan ahalik eta min handiena saihesteko xedeaz.

Bere isiltasuna gaingitu zuen unetik bertatik neska zakilduna dela da zure alabaren deiarra. Nola gogoratzen duzu bere izana aldarrikatzen deneko unea?

Barrutik niretzat ulertezina zen iraultza bat zerion. Hilabeteak

besterik ez zituen, eta gauetan adierazten zuen ezinegona. Asko mugitzen zen, mina izango zuelakoan ohi baino gehiago esnatzen zen, eta hortekin “kras kras” egiten zuen. Denbora luze zer zuen ezin jakin, baino gaixotasunik ez, horrela konfirmatua pediatrik. Ordurako bere gustukoen jokua erraldoiak eta dantza, nire arropa soineko gisa erabiliz. Hitz egiten ikasi bezain pronto hasi zen: “Neska naiz”. Haur eskolako hezitzailea izan zen transexualitate kasua aztertu beharko nuela aholkatu zidana. Neska naiz maiz esaten zuen, maizegi. Lasaitasuna eman zidan aukera horrek, zerbait psikologikoa zuela esaten baitzidaten, eta hara non, ez zen ezer larria. Garrantzitsua eta aberasgarria bai, alegia.

Noiz egiten duzu zure bere deiarra?

Berak argi esan arren, zalantzak nituen, ez ohikoa den gauza bat delako. Agian oso gustukoa zuen nesken rol-ak eta horrekin konforme gelditzen nintzen. Baina 3 urte zituelarik, eskolako Olentzero egunean galtza eta txapela prestatu genituen. Berak ezetz, ez zituela jarriko, ni bezala nahi zuela, negarrez esan zigun. Oso barrutik ateratzen zen negar hori. Sufrimendua adierazten zuena, begiradak oinazea islatzen zuen. Galtza horiek jarritz gero

benetan minduko nuelaz ohartu nintzen. Hitzez esaten zigunari ez genion kasurik egin. Egun horretan argi ikusi nuen, ez nuela semea, baizik eta alaba.

Baina, isiltasunak mintzen du, diozu. Horrexegatik, beharra duzu isiltasuna apurtzeko. Zergatik?

Haur hauek ahalegina egin behar dute nor diren adierazteko, egunero, eta hori neketsua da, oso. Aitortza publikoa bidea erraztea dela uste dut. Horrela jendea ez da ibili behar izkutuan susmoak komentatzen.

Isiltasuna apurtzen bada, soinu berri bat entzunaraziko da. Non eragiteko?

Gizartean eragiteko. Dibertsitatea ez da hitza, errealitatea da, aberastasuna. Pitilina duten neskak eta alua duten mutilak daudela onartzeak hobe eginen gaitu gizarte bezala.

Zure alabaren ama zara, eta zure alabarekiko amaren kezkatik mintzatzen zara. Zenbaterainokoa da isiltasun honek zure alabari jada eragin dion mina? Nolakoa da zure alabari eragiten dion isiltasuna?

Benetako bizitzaz ez gozatzea suposatzen dio, askotan antzezlan batean egongo balitz bezala bizi baita.

Gure inguruan denok elkar ezagutzen dugu. Zer da eskatzen diozuna zure inguru hurbilari?

Esango nieke orain arte ikasi dutena ez dela zuzena. Begiak, belarriak, gorputz osoa prest jartzeko ikasketa berriarekin: Pitilina duten neskak eta alua duten mutilak daude. Informazioa dago orain, hurbildu daitezela errealitate hau ezagutzera, aberastuko dira.

Zeren beldur zara, zerbaiten beldur bazara?

Besteen jarrerei diet beldurra, eta noraino mintzen ahal duten. Ezjakintasuna oso ausarta baita.

Amets bat?

Xumea, nire semearekin dudak berdina: Bere burua maitatzea den bezala, beti. Nik maite dudak bezala, gutxienez (je, je...)



Galderak:

Dani Martirena Indart kazetaria
(Eraso, Imotz)

Erantzunak:

Sara Quesada Diaz
(Aizarotz, Basaburua)



▲ Transexualitatea lantzen duen Dani Martirenaren eta Ana Ibañezen Jonek Jone izan nahi du liburuaren ilustrazioa. Ana Ibañez



Kin Potowski (II)

Azken aurreko zenbakian Kin Potowski ekarri genuen hona. Bere zenbait ideia ere azaldu genituen guretako on direnak, nire ustez.

Kin Potowski hau New Yorkeko alaba, espainolez ederki ikasi eta hizkuntza landu duena, Illinoisko (Chicago) Unibertsitateko Linguistikako katedraduna da, 12 libururen egilea. Eta espainolez ere heztearen aldeko programa batean sarturik dago. Espainola galtzea ez du inola ere nahi!

Gurean euskara ahul eta herabe den bezala, Ameriketako Estatu Batuetan espainola da leku hori duena. Hala ere, egoera gurean askoz ere latzagoa da. Askoz ere latzagoa.

Madrilgo hitzaldi horretan aipatu zituen gauzeekin segituko dugu, zerbait ikas dezagun:

ETXEAN, NOLA?

-Senideetan nork ikasten du hobekienik gaztelera? Lehenak? Bigarrenak? Hirugarrenak? Gauza aztertua dugu, zaharrenek hobeki ikasten dute. Gazteenek okerrago.

Adibidez, dio, gurasoak nekatuago direla 3. edo 4. umea hazten hasten direnerako, eta gazteenei ingelesaz hitz egiten uzten omen diete etxean aunitzetan. Eta jakina, gaztelararen maila jausten da.

Gure kasuan, etxean, beti euskaraz ari behar dute. Inoiz ere ez erdaraz.

Etxeetan amatxik inportantzia handia du: amatxirekin haurrak gauean telebistako gaztelarazko nobelak ikusten dituzte eta...

Gurean, aitatxi-amatxik aritzen dira euskaraz bilobekin?

Besterik ere badio: **"Ingelesaz zenbat eta beranduago ikasi hobe gaztelararendako"** "Gero ere ikasiko du erdaraz, ez izan beldurrik", gehituko genioke guk.

Artikulu hau luzatzeko asmotan nintzen, baina hurrengorako utzi beharko dugu, gauza hauek poliki irakurtzea eta buruan sartzea komeni baita: etxea da inportanteena, erdaraz lehen aldiz egiten dizunean haurrak, ez irrik egin, serio hartu, euskaraz mintza dadila; ez diozu ulertu ere egin behar; aitatxi-amatxi eta ahaideek, euskaraz egin diezaiotela. Eta zenbat eta beranduago erdaraz ikasi, hainbat eta hobe!

Etxean beti ardo frexkoa, ez iezaiozu ozpinik eman zure alabari globulu gorriak hiltzen ditu eta!

**Txurdan**

Hiztegia

Zenbakia: numeroa**Hezi:** edukatu**Herabea:** vergonzoso**Gaztelera:** espainola**Aztertut:** ikusi, miatu, zerbait ikasteko.**Adibidez:** esate baterako; por ejemplo**Jausi:** erori.

Kin Potowski, New Yorkeko hizkuntzalaria ▲

Lanbide Heziketa

**ETORKIZUNA
ZURE ESKU**

Izena
ematea

MAIATZAK 17-26



Elizondo Lanbide Eskola IIP

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta Finantzak

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Erizaintzako zaintza lagungarria
- Natura inguruneke eta aisialdirako gidaria
- Mekanizazio teknikaria

OINARRIZKO LH

- Bulego Informatika
- Elementu metaliko Fabrikazioa

LH BEREZIA

- Ostatu/garbiketa laguntzailea



Tel 848 431632



Jese Leon: “Ura, sokak, jauziak... konbinazio perfektua da kirol hau”

Duela hiru urte inguru hasi zen Orkingo (Ultzama) Jese Leon Matxin arroila-jaitsiera praktikatzen. Eskalada mundutik zetorren bera, baina lesio baten ondorioz denbora luzez alde batera utzi behar izan zuen kirol hori. Errekuperatutakoan, berriz, lagun batek arroilara joatea proposatu zion, eta lehen momentutik jarduera horrekin maiteminduta gelditu zen ultzamarra

Nondik nora hasi zinen arroila-jaitsierak egiten?

Lagun batek proposatu zidan duela hiru urte Artetako Artazul arroilara joatea, hura izan zen nire lehenengo jaitsiera, eta hortik aurrera pikatuta gelditu nintzen. Zergatik? Bada, uretan eta sokekin ibiltzea gustuko dut, eta beraz, konbinazio perfektua da niretzat! Jauziak, txirristak, rappelak... denetik du, eta sekulako ikuskizuna da gainera. Hasi nintzenetik kasik astebururo joaten naiz arroila-jaitsiera egitera.

Ezagutzen ez duenari argitzeko, zertan datza zehazki arroila-jaitsierak?

Normalki altuera ertaineko mendietan egiten den kirola da. Aldapatxo bat egoten da uraren erosioagatik zirrikituak dituen, eta horretatik errekatxoak suertatzen dira, haitzen artean. Denbora edo metro oso gutxitan mendia asko jaisten duzu: ur-jauzietatik, putzuetatik, irrisgailuetatik... Ur biziko errekak izaten dira normalean.

Modalitate desberdinak daude kirol honetan ere?

Eskaladan bezala maila desberdinak daude, bai. Maila horiek sailkatzerakoan kontuan izaten den faktore bat arriskua edo zailtasuna da, eta beste puntu bat ur kantitatearena: zenbat eta ur gehiago, orduan eta zailagoa izanen da arroila. Badira adibidez udako arroilak, udaberrikoak edo negukoak. Azken horiek askotan izotzarekin eta temperatura estremoagoekin jaitsi behar izaten dira.

Bere arriskua ere badu horrek...

Bai, arrisku kirola da, eskalada edo alpinismoa bezala, eta nahiz eta segurtasun neurri guztiak hartu ekipoekin-eta, beti badago arrisku bat. Suertatu daiteke arroka bat erortzea, edo uraren emariak sortutako mugimendu azkarrak... Meteorologiak eragin handia du jarduera honetan, eta oso ongi kontrolatu beharra dira ekaitzak eta antzekoak. Eta horiek guztiak kontrolatuta ere, jakin beharra duzu zertara zoazen, arriskua beti

dago, hau ez baita futbola. Dakien jendearekin egin beharra da beti kirol hau, are gehiago hastapenetan.

Eta zer da jarduera honetatik gehien erakartzen zaituena?

Naturako toki ikusgarrietan egin daitekeela. Esaterako, Iruña ondoan badago Diabloluzulo izeneko arroila, eta harrigarria da, kanpoan leku nahiko lehor batean zaudelako, baina bat-batean arroilan sartu eta hara! Reunion uhartean zaudela ematen du: ur-jauziak, arroak hartzen dituzten forma politak...

“Arriskuak eman duen adrenalina hori ere oso gustuko dut”



Duela hiru urte inguru hasi zen Jese Leon arroila-jaitsieran



Arrisku handiko kirol bezala dago izendatua jarduera hau



ekoaholkuak

“Lurrak emandakoa, lurrari bueltan”

Edukiontzi berdera doazen poltsak arakatzuz gero, hauen erdia baino gehiago materia organikoak (barazki zatiak, fruta azalak, arrautza-oskolak...) osatzen dutela ikusiko genuke. Jakin badakigu edukiontzi berdeko zakarra, errefusa alegia, ezin dela birtziklatu eta beraz, zabortegietara edo erraustegietara bidaltzen dela. Gure eskualdeko zakarren kasuan, Gongorako zabortegira eta, bertan, negutegi efektua areagotzen duten gasak isurtzearen arduradun nagusiak dira.

Aitzitik, materia organikoa bereiztu eta konposta edo luarra lortu dezakegu zikloa itxiz. Horrela, gaur egun hainbestetan entzuten dugun ekonomia zirkularra gure etxean jar dezakegu praktikan.

Gure arbasoek betidanik egin dute eta finean, hau da gure hondakin organikoak modu ekologikoenean kudeatzeko aukera. Hasiera batean nahi ez dugun material bat lurra ongarritzeko material bihurtzea, alegia.

Oraindik ez duzula egiten? Animo, hau da zure aukera, konpostagailua erabilia edo besterik gabe hondakin organikoak lurlean pilatuz eta lurrarekin estaliz, hilabete batzuen buruan zure hondakinak baratze edo landareentzako ongarrri bikain bihurtuta ikusiko dituzu!



▲ Konposta, lurrerako ongarrri bikaina, lortzeko erabili ditzakegu hondakin organikoak

Zorionak Zorionak !



Zorionak, Naroa!



Zorionak Mariuxi!



Zorionak Alfonso!



OSTIRALERO KULTURA!

Uda hasi eta ostiral kulturalak atseden bat hartu baino lehen, hainbat ekimenenez gozatu ahal izanen dugu Larraintzarko Gizarte Etxean: antzerkiaz, musikaz, zinemaz... eta bisita aipagarri batzuez: Jon Alonso idazleak, Naparra, kasu irekia, aurkeztuko digu; eta Patxi Bisquert aktorea Pello Mari Otaño bertsolariari buruz egiten ari den pelikula aurkeztera etorriko da. Eta adi! Guk produktore gisa parte hartzera gonbidatuko gaitu.

Ombuaren itzala

Nahi gabe bihurtu zela aktore dio Patxi Bisquertek (*Tasio* ahaztezina Montxo Armendarizen pelikulan), zuzendari ere nahi gabe eta orain, nahi gabe, zinema produktore. Azken bolada honetan Pello Mari Otaño poeta eta bertsolariaren bizitza pantaila handira eramateko borrokan ari da, **Ombuaren itzala** izenburua izan lukeen pelikulan. Baina ez edozein modutan. Auzolanean, orain arte egin ez duen egitasmo baten bidez. 10 eurotan 30.000 sarrera saldu nahi ditu filma egin eta estreinatu baino lehen, eta horretarako, herriz herri dabil Patxi. Asmoa, pelikula herri txiki horietara eramatea da, hango jendeak hiriburuetako zinema areto handietara joan beharrik gabe ikusteko aukera izateko.

Gurekin egongo da maiatzaren 7an, eta auzolan erraldoi hau nolakoa izanen den eta Pello Mari Otaño erotasun eder honetara zergatik gidatu duen kontatuko digu.

Baina nor da Pello Mari Otaño? "Pedro Mari Otaño poeta bakarrik ez, bere garaiko pertsonaia da, bizimodua aurrera ateratzeko abenturan buru-belarri murgilduta dagoena... baita politikaren abenturan, hitzaren abenturan, edota nongotasunaren abenturan, noski!", idatzi zuen Koldo Izagirre idazleak.

1857an Zizurkilen jaioa, Bisquert bezala, batez ere bertso paperengatik zen ezaguna Otaño (ez zuen jendaurrean kantatzen, ezarri arazoak zituelako), baina poesia ere landu zuen. Izan ere, bere bertsoak oso lirikoak ziren, hori izan daiteke bere ezaugarri nagusia. Gaur egun oraindik oso ezagunak dira Ameriketatik bidaltzen zituen bertso paperak (Argentinan bizi izan zen urte luzetan). Hemen horrelakorik ez zenean euskara irakasle izan zen han, eta bere eskuz idatzitako metodoa asmatu zuen klaseak eman ahal izateko... La Plata Unibertsitateko Euskarazko Katedrak bere izena darama.

"Gai horiek guztiak jorratzen ditugu *Ombuaren Itzala* filman; eta hori gauzatzeko, filma grabatu ahal izateko, herritarren laguntza eskatuko dugu", esaten digu Patxi Bisquertek. "Horregatik, eta gauden momentuan, ezinbestekoa dugu sarreraren salmentari gogoz heltzea. Ahal bezain beste sarrera saldu beharko ditugu ikasturtea amaitu aurretik. 30 mila sarrera hoietatik, gutxienez 25 mila saldu behar ditugu sanferminen aurretik, Argentinako grabazioa egiteko. Baina itxaropentsu gaude, guztioi esker lortuko dugulako. Gure herritarrek maite dituzte Otaño bezelako pertsonaiak, eta bere itzala oraindik handia da gure gizartean".

Hala izan bedi!



Pollo con ciruelas pelikularen irudi bat



Romeo y Julieta confinados antzezlanaren ikusi ahaliko dugu maiatzean



Zinema, antzerkia eta literatura

Apirilaren 7an izango da beraz Patxi Bisquert bisitan. Eta hurrengo ostiralean pelikula ikusteko aukera izango dugu: *Pollo con ciruelas*, Marjane Satrapi Irango komikilari ospetsuaren lanean oinarritatukoa. Irakurle klubean irakurri dugu komikia eta ostiral honetan, apirilaren 14an 19:00etan komentatuko ditugu biak, filma eta liburua (hala ere, ez da beharrezkoa komikia irakurtzea pelikula ikustera etortzeko, sarrera irekia eta dohainik da; bide batez, gonbidatzen zaituztegu irakurle klubetan, gaztelaniaz zein euskaraz, parte hartzera. Liburutegiko emailera (liburutegia@ultzama.es) mezu ban bidali baino ez duzue egin behar).

Apirilaren 21an antzerkiaren txanda izango da. Miguel Goikoetxeandiak,

Iluna Teatro talde ospetsuaren zuzendariak, idazten, zuzentzen eta interpretatzen ditu pertsonaia guztiak pikareska eta gaurkotasuna lotzen dituen antzezlan ganberro honetan: *Romeo eta Julieta confinados*. Algarak ziurtatuak daude!

Hurrengo ostiralean, liburu aurkezpen bat izango dugu. "Naparra, kasu irekia". Jose Miguel Etxeberria Alvarez "Naparra", Komando Autonomo Antikapitalistetako militantea eta Iparraldean errefuxiatua, 1980ko ekainaren 11n desagertu zen, norbaitek bahitu eta erailda. Ordutik ez da haren gorpurik agertu, eta ez da desagarkeraren egileez edo xehetasunez berri zehatzik jakin. Jon Alonsok, era bateko eta besteko iturrietara joz, ikerketa zabal eta sakon bati ekin dio, kasu horretaz

dakigun guztia biltzeko, baita susma dezakeguna iradokitzeko eta ilunpean dagoena gogorarazteko ere. Naparra kasuaz hitz egitean, baina, gutxienez bi kasu hartu behar ditugu aintzat: bata, indarrez desagerrarazi zuten borrokalaria gazte, argi eta kementsuaren historia lazgarria; eta bestea, semearen (eta anaiaren) arrastoaren bila berrogei urtez batera eta bestera joz eta askotan bakardadean, modu nekaezinean jardun duen familiaren historia, aurrekoa bezain lazgarria edo agian lazgarriagoa. Biak landu eta jorratu ditu egileak Tene Mujika sariaren laguntzaz idatzitako lan honetan, gure memoria argituz eta astinduz; izan ere, noizbait denontzat bizigarria izango den herri bat eraikiko badugu, bidean gertatu diren izugarrikeria guztiak hartu beharko baitira gogoan.

Erakusketak eta ekaineko programazioa

Ekaineko lehenengo ostiralean Sustrai erakundeko Mikel Saralegik eta Anotzibarko bizilagun batzuek energia berriztagarriez eta gure ingurune hurbilean horiek duten eraginaz hitzaldia eskainiko digute. Eta *Deabruren errota* dokumentala proiektatuko da.



▲ Larraintzarko ikastetxeko Sustraiak proiektuko lanak ikusgai izanen dira Larraintzarko bentan

Udan atseden hartu baino lehen, programazioa ekitaldi honekin itxiko dugu: *JAC bluesmanek* aurkeztuko digu bere azken lana: RAW. Hemen entzun ditzakezue abesti batzuk:



▲ Jac Bluesmanek bere lana aurkeztuko du, Raw

Erakusketei dagokienez, "Sustraiak" hezkuntza-proiektuari lotutako ikasleek egindako lanak ikusi ahal izango dira maitzaren lehenengo hamabostaldian, eta 4. DBHko argazkigintza irakagaian egindako lan batzuk ikusgarri izango dituzue bigarrenengan.

Bukatzeko, ekainean zehar Peruko Lucho Herrera artistak zuhaitzei buruz egiten duen lana erakusgai izango dugu Gizarte etxean: zuhaitzen sinbologiaz eta zuhaitzen bidez

Patxi Irurzun
Ultzamako liburutegia

2021eko martxoa

2021eko Martxoan gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Sortzeak:

ULTZAMA Arraitz-ORKIN

Markel Goñi Molinares, martxoaren 27an sortua. Gurasoak: Sergio eta Leyre, Orkingo **Migelenekoak**.



▲ Markel, Aingeruri lagun egitera etorria

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak:

Martxoan, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

Heriotzak:

ANUE Aritzu

Maria Aurelia Ilarregi Gerendiain, **Joangoxeneko** alaba; martxoaren 23an hil zen.

Olague

Gloria Arribillaga Goñi, **Muñoko** etxeakoandrea; martxoaren 5ean hil zen.

ULTZAMA Iraizotz

Josefina Satrustegi Narvaez, **Dorreko** alaba; martxoaren 28an zendu zen, 99 urtetan.



▲ Josefina bere anaia Agustinekin

Suarbe

Manuel Maria Ilarregi Artze, **Sandroneko** semea, martxoaren 23an hil zen 67 urtetan.



▲ Imanol Ilarregi, soldadu denborakoan

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	Beranduegi (Argia podcast)
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM